

noaua



**Irubideko memoria-gunea
azaleratzera doa Usurbil
1936 elkarteak**

**Erraztasunak eta
dirulaguntzak, euskara
ikasi nahi duenarentzat**



**Euskal Trenbide Sareak eta Udalak
Usurbilgo tren geltoki berria
eraikitzeko hitzarmena erdietsi dute**



English courses

Matrikulazio epea zabalik

**Klase prezentialak eta online
informa zaitez!**

kamden@kamdenhizkuntzak.com

kamdenusu@gmail.com

www.kamdenhizkuntzak.com

Zubiaurrenea 6 • Tlf 646 94 58 17



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24 orduz)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE...•ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

Ingeleseko klaseak haur eta helduentzat **LH3tik aurrera**



Bertako irakasleak • Matrikulatzea dohainik • **Online** saioak urrutiti bizi direnentzat
Talde murriztuak • Cambridge azterketen prestakuntza • High level "use your English"



Zatoz lagunekin ondo pasatuz ikastera!
Taldeak irekiak daude datorren kurtsorako

686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com • Alperroburu 2, Usurbil

Image: Freepik.com

Albisteak iruditan

Gorazarrea baba beltz txikiari

Lau hamarkadatik gorako tradizioari segida emanez, baba beltz txikiari gorazarre egiten dion kofradia bildu zen abuztuko azken ostegunean Saizar sagardotegian. Aipatu jakia zuen otordua dastatu ostean, ohi bezala, kofradekide berri bat izendatu zuten 2023koa iragartzearekin batera; aurten, Egioletako Txomin Alkorta Sarriegi.

Gogoan izango duzue, Txomin Alkorta iazko udazkenean omendu zuten Dema plazan, herri kiroletan lehiakide nahiz eragile gisa, segan bereziki, gazte garaitik jorratu duen ibilbide oparoagatik.

Kapa beltzak soinean, txapelak buruan egin zioten harrera, ereserkia abestu ostean, kide berriari. Zin egiteko ospaki-



Kapa beltzak soinean eta txapelak buruan egin zioten harrera, ereserkia abestu ostean, Txomin Alkorta Sarriegi kide berriari.

zuna egin zuten; txapela eta kapa beltza jantzi lehenik. Lurra lantzeko tresnaren, laiaren laguntzaz zin egitea bideratu zu-

ten. Laia eskutan hartu eta igoarazita, esker onez erantzun zuen jasotako harre-ragatik Alkortak.

Laburrean

Sukaldaritza tailerra Guria tabernan

Sukaldaritza klasea antolatu dute Guria tabernan, "Thermomix" baliatuta. Irailaren 14an asteazkena egingo da ikastaroa.

Arratsaldeko 17:30ean hasiko den saiorako izena aurrez eman behar da, 634 626 659 telefono zenbakira deituta.

1952an jaiotakoen bazkaria, urriaren 22an

Lukainkategi jatetxean ospatuko dute urriaren 22an, 1952an jaiotakoen topaketa, bazkari eder baten bueltan. Izena emateko epea hilabete horretara arte, urriaren 15era bitarte zabalik izango dute. Apuntatzeko deitu 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

Sexuen Aholkularitza Gunearen erakusketa

'Sexuen ibilbidean, Usurbilgo Sexuen Aholkularitza Gunea bidaidea. Pentsatu, izan eta bixi bizi' izeneko erakusketa ikusgai izango da irailaren 22ra arte Sutegin. "Erakusketan, gure lan egiteko modua, landu daitezkeen gaiak eta go-goeta interesgarriak agertuko zaizkigu".

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Alazne Arruti Bengoetxea

Iraila

Badira musika talde batzueiitsu-itsuan jarraitzen dien jendea. Baita, taldearen aldaketetara egokitzeko prest ez dagoena ere. Euren gustuko taldea, estiloz aldatu eta azken diskoak albo batera utzi eta lehengoak ez direla salatzen zurruntasunaz gainera. Badira hala ere, begiak eta belarriak zabalik, berritasuna barneratu eta ausardia balioan jartzeko gogo topatzen duen jendea ere. Eta guztiak dira zilegi, ez nator kontrakorik aldarrikatzera behintzat.

Halako zerbait sentitu izan dut Berri Txarrak taldearekin zenbaitetan. Hasieran, anaia zaharrak aditzen zuen burrunbak asaldatu egiten ninduen. Oraindik arrotz zitzaidan bozkario batek izutzen ninduelako ziurrenik. Gerora ordea, kantak pixkanaka ezagutu ahala, euren letra eta doinuak harrapatu ninduten. Kantak errepikatuz barneratu nintzen erritmoetara. Eta batek daki zein momentutan zehazki,itsu-itsuan aditzen nituen horietako bat izatera ere pasa nintzen noizbait. Kontzertuetan garrasika, irudi lausoak atera izan ditut, kontzertura bete-betea egon beharrean. Kantatu izan ditut abestiak, robot baten pare, esanahiak oraindik ulertu ere egin gabe. Kontatzen zutena ezagutu gabe. Baina bizi-



"Irailak badu (...) munduaren nekea hostoetan gordetzen duenaren itxura".

ALAZNE ARRUTI

"Ostera lehengora itzultzeko erresistentzia hori ulertzeko momentua heldzen da. Izan ere, itzulerak ez luke zertan horren gogorra izan behar. Beraz, galdetu gaitzen, zeri gabiltza ihesi?"

tzako beste hainbat alorretan gertatzen den moduan, une gozoagoak ere heldu izan zaizkit, zorionez.

Hala ere, denbora aurrera joan ahala, inguruan emandako aldaketekin batera eta nire gozamenerako, aro berri bat zetorren eurentzat ere. Eta honexek, nire bilakaerarekin bat egin zuelakoan nago. Kantuak bigunagoak izanagatik, iruditeri berri bat zabaldu baitzen nigan, eta ziurrenik horri esker, azken aldi horretako kantak oraindik ere gertu sentitze-

ko gai naiz inguruko zenbait lagunengatik. Hala ere, aitortu beharra dut, eman zituzten azken kontzertuetatik hona, ez ditudala horrenbeste aditzen. Izan ere, guztiak du aldatzen jarraitzeko behar bat. Eta tartean, beste hainbat talde ezagutzeko aukera izan dut.

Dena den, badira oraindik mantentzen ditudan zenbait erritual. Eta horietako bat besteak beste, irailaren etorrera izaten da. Izan ere, izen bereko kantuak dioen moduan, irailak badu, hitzak izen gabeko txorien antzera urtaro batetik bestera bidaliagatik, munduaren nekea hostoetan gordetzen duenaren itxura. Uda eta opor ostean, egun eguzkitsuei aurre egiten dien iluntasun moduko bat gorde dezake. Baina, egunerokotasunera itzuli nahi ez duenaren pisuaz gainera, oraindik mantentzen den edertasuna sentitzeko gaitasuna ere izan dezake. Argi-ilunean bizitzeko unea eskaintzen digu no-

labait. Betiko aurretik izango dugun iraganaz jabetzeko aukera bat. Eta baita, guztiaren gainetik, ostera zero-tik hasteko erabakiak indartzekoa ere.

Kresala eta hondar-aleak oraindik ileetan gatibatu-ta izanagatik, bada herriko festetan bizitakoak, txosna basoen antzera, nonbait pilotzeko unea. Oporretan, hara eta hona astindutako gorputza, etxean eta patxadaz errutinara itzularazteko garaia. Izter urratuak samurtu eta bakoitzaren nahi eta beharraren arabera ariketa fisikoari ostera ekiteko aitzakia.

Baina batez ere, ostera lehengora itzultzeko erresistentzia hori ulertzeko momentua heldzen da. Izan ere, itzulerak ez luke zertan horren gogorra izan behar. Beraz, galdetu gaitzen, zeri gabiltza ihesi? Estatu mailan hartutako efizientzia neurri epel eta hilabete amaierako faktura elektrikoari? Hipotekari edo norbere etxe bat izateko ezintasunari? Lan baldintza eskasei eta arrakalei? Asebetetzen ez gaituzten betekizunei? Etengabeko eraso eta ziztadei? Une oro zanpatzen gaituen eta kontsumitzen jarraituzera bultzatzen gaituen sistema kapitalistari?

Bada, hasi gaitzen zero-tik.


Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Komikia



Santuenean jolasean ekin diote ikasturte berriari

Ikasturte berria gainean da, eta Santuenean uda agurtu eta ikasturte berriari hasiera emateko elkartu ziren larunbatean auzoan. Trebetasun jolasekin hasi zuten arratsaldea, eta DJ Gorkamendi arduratu zen musikarekin arratsaldea girotzeaz. Ondoren, afaria egin zuten, nork berea etxetik ekarrita.

Argazki lehiaketa

Santuenea Elkartek argazki lehiaketa antolatu du. 19. edizioa du lehiaketak eta jaiak dira erretratuertarako hautatu duten gaia. "Santueneko festak" islatzen dituzten irudiak aurkezteko epea irailaren 30era



Trebetasun jolasak eta musika nagusi izan ziren aurreko larunbatean Santuenean.

ARGAZKI LEHIAKETA

"Txapelketara argazki bakarra aurkeztu ahalko da"

artekoa izango da.

Hiru adin tarte

Hiru adin tarteok parte har dezakete: 4-7 urte artekoek, 8-16 urte artekoek eta 17 urtetik go-

rakoek. "Talde bakoitzeko irabazleak saria jasoko du", ohartarazi du argazki lehiaketako antolakuntzak.

Argazkia gutunazal itxi batean aurkeztu behar da

■ Txapelketara argazki bakarra aurkeztu ahalko da, gutunazal itxi batean eta azalean adina zehaztuta.

■ Gutun barruko argazkiaren atzekaldean egilearen izena eta telefono zenbakia idatzi behar-ko da.

■ Gutuna argazkia duela, Santuenea elkarteko postontzian sartu edo helbide honetara bidali behar-ko da:

alaznelazkano1@gmail.com

Ika-mika

Ondo dago Errotaberriko presa botatzea, baina alferrik izango da baldin eta Orbeldikoa ur bizien kanala egiteko mantentzen bada

Uda honetan, Usurbilen, Oriako ibilguan, Errotaberriko presa zaharra, gero Ingemar marmol-fabrikak berrerabili zuena, eraisten ari dira. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak argitaratu berri du Aldundiak baimena eskatu duela ibaian gora dauden beste hiru presa txiki eraisteko: Asteasuinzarra, Michelin 1 eta Michelin 2, Usurbilen eta Lasarte-Orian.

Txalotu egiten ditugu ibaien egoera ekologikoa hobetzeko politikaren barruan dauden

ekimen hauek. Izan ere, ibaien ibilguak oztopoz josita daude, batez ere presak eta presa txikiak, askotan aspalditik erabilerarik ez dutenak, gainera. Oztopo hauek ur-erregimena aldatu eta arrain-espezieen mugikortasuna zailtzen dute.

Alabaina, ohartarazi nahi dugu presa txiki horiek eraistek ezer gutxirako balioko duela baldin eta ibai-zati horretan dagoen oztopo nagusia, hau da, Orbeldiko zentral hidroelektriko zaharreko presa, zutik mantentzen bada ur bizien

kanala eraikitzeke. Eta ez ahaztu kanal-proiektu horrek Usurbilgo Udalaren behin-behineko onespina eta Eusko Jaurlaritzaren babesa badituela.

Kontuan izan behar da Orbeldiko presa, ibai-zati horretako oztopo nagusia izateaz gain, Oria biziberritzeko gakoetako bat ere izan daitekeela, itsasotik sartuta arrainek aurkitzen duten lehen oztopo handia delako. Are gehiago, arrainek saihestu dezakete soilik presako eskuinaldean dagoen eskala bati esker. Eta eskala horretan, ez kasuali-

tatez, Aldundiak arrainen jarraitpena egiteko nasa bat dauka. Aldundiak berak presa hau botatzeari garrantzi handia ematen dio. Gipuzkoako Oztopoak Iragazkortzeko Plan Gidarian, behintzat, Orian aurrikusitako ekimenak aipatzen dituenean, zera dio: "Azpimarratzekoa da Orbeldiko presa eraistea". Eta, hala ere, ur laster edo ur bizien kanal-proiektuak hor jarraitzen du.

Eguzki Talde Ekologista eta Anerreka Ingurumen Elkarteak

Art Pi
bazarriak EGUINERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
☎ 943 362725
☎ 688 690 361

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Ia milioi erdi euro gehiago, hainbat herri egitasmo indartzeko

Diru kontuak hizpide, uztailaren 21eko udalbatzarrean. Batetik, 2021eko Kontu Orokorra onartu zuten gehiengo osoz EHBilduren udal ordezkarien aldeko bozkekin, EAJ eta PSE abstenu ziren. Udal aurrekontuen zikloa ixten du urrats honek.

Kreditu aldaketa

Horrekin batera, udal gobernu taldeak 2022. urte honi begirako bigarren kreditu aldaketa onartu zuen gehiengo osoz, EHBilduren eta PSE-aren aldeko bozkekin. EAJ abstenu zen. Aurtengo aurrekontuetan beste 495.000 euro txertatzea erabaki dute hasieraz.

Dirutza hau sei egitasmoetarako aurreikusitako inbertsioak indartzera bideratuko dute. Kopuru gehikuntza hau, modu honetan finantzatu dute: 270.251,18 euro diruzaintzako gerakinetik bideratu dute, 208.334,98 euro estatutik udalerriei eginiko Covid funtsaren ekarpen horretatik eta 16.413,84 euro Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotakotik. Hirugarren kreditu aldaketa udazken partean egin asmo du udal gobernu taldeak; kreditu aldaketa hori, Oria Zumarte industriagune parean lehengoratzera bideratu nahi dute. Europako dirulaguntzetara aurkeztua dute egitasmoa, eabazpenaren zain dira.

Finantzatuko diren egitasmoak: Ekipamendu eta altzariak

12.000 euro aurreikusiak zituen udal gobernu taldeak, baina beste 55.000 euro bideratuko dituzte, 67.000 euro guztira. Diru kopuru honekin udalbatza aretoa egungo teknologietara egokitu nahi dute: etorkizunean osoko bilkurak streaming bidez zuzenean eskaini, aretoan bertan dagoen gelatxoa bilera telematikoeta-



Uztaileko plenoan, udal gobernu taldeak 2022. urteko bigarren kreditu aldaketa onartu zuen gehiengo osoz.

SAN ESTEBAN KALEA

“Kaxkoa Etxealdiarekin, tren geltokiarekin eta Santuenearekin lotzen dituen pasabidean, oinezkoek lehentasuna izateko proiektua lantzen ari da Udala”

rako egokitu... Finean, udal zerbitzuen digitalizazioan urrats berriak eman.

Pelaioenea

Gogoan izan, Kalezarko Pelaioenean kokatuko dira etorkizunean Emakumeen Etxea eta kalezartarrentzako udal ekipamendua. Eraikina bera kanpotik birgaitua dago, barrualdeko lanak bideratzea falta da orain. 500.000 euro zeuden bideratuak egitasmo honetara, baina kreditu aldaketa honekin beste 75.000 euro gehitzea erabaki du udal gobernu taldeak. Materialen prezioen azken aldiko igoerak eragin du Pelaioenea-rako kopuru hau gehitzea.

Usurbil 0.0

Udal gobernu taldeak 20.000 euro zituen gordeak aurtengo udal aurrekontuetan egitasmo

honetarako. Beste 20.000 euroko ekarpena egitea erabaki dute orain, 40.000 euro guztira beraz. Gehikuntza hau, San Marko Mankomunitateak hilero herrira eta auzoetara ekartzen duen furgoneta ibiltariaren zerbitzura bideratuko dute. Orain arte, hilero lehen eta azken asteazkenetan etorri izan da. Egunitako batean Kaxkoan egon ohi da eta bestean goiz berean auzo guztiak zeharkatzen ditu. Aurrerantzean, “Garbigune ibiltari” hau indartzea da asmoa. Zerbitzu hau baliatzeko herritarrei erraztasunak eskaintze aldera, asterokoa izatera igaroko da Usurbil osatzen duten herri eta auzoetan.

San Esteban kalea

Usurbil erdigunea Etxealdiarekin, tren geltokiarekin eta Santuenearekin lotzen dituen pasabide aldatuaren aurrerantzean oinezkoek lehentasuna izateko proiektua lantzen ari da Usurbilgo Udala. Egitasmo honetara 175.000 euroko ekarpena egitea erabaki du. Kale hau ibilgailuen erabilerarako mugatu eta oinezkoek lehentasuna izateko egokituko

dute, eta obrak bertako azpiegiturak berritzeko ere baliatu nahi dute.

Zaintza ekosistema

54.000 euro erreserbatuak ziztuzten egitasmo honetarako, baina beste 20.000 euroko ekarpena gehitzea erabaki du udal gobernu taldeak, 74.000 euro beraz guztira. Bestelako zaintza eredu bat eraikitzeko prozesua martxan da Usurbilen, gogoan izan.

Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren auzunerako igogailua

150.000 euroko ekarpena egingo dio Udalak egitasmo honi. Eraikitzen ari diren auzune berri honetara N-634 errepi-detik heltzeko mugikortasun jasangarria eta irisgarritasuna bermatze aldera, igogailu bat instalatuko dute. Egitasmo honetarako, udal gobernu taldeak berri eman zuten, finantziarioa Matia Fundazioak eskuratu du. Udalak ordea 300.000 euroko ekarpena egingo du: 150.000 euro aurtengo eta beste 150.000 euro 2023an. Igogailuaren mantenuaz ere Udala arduratuko da.

Osasun sistema publikoa bermatu eta indartzeko eskaera sorta

Osakidetzako murrizketak salatu eta osasun sistema publikoak dituen gabeziei aurre egiteko eskaera zerrenda biltzen duen mozioa onartu zuten uztailaren 21eko udalbatzarrean.

Urte osoan etenik gabe osasun zerbitzuak bere horretan bermatzea. Lehen arretan ibilbidea jorratzeko ahalbidetuko duten kontratu egonkorak sustatzea langileentzat; horretarako, kontratazio-eredua eta irizpideak aldatzea. Eta Osakidetzako lan taldea handitzea, “diziplina anitzeko lan taldeak sortuz”. Eskaerok biltzen dituen eta egun Osakidetzan indarrean diren murrizketak salatzen dituen mozioa onartu zuten uztailaren 21eko udalbatzarrean.

Herritarrek pairatzen duten zerbitzu galeraren inguruko hainbat adibide aipatzen ditu udal gobernu taldeak osoko bilkurara eramandako testuak; Etenik Gabeko Arreta Guneen itxiera edo ordutegi murrizketa; profesional gabezia eta



Lur Etxeberria Gurrutxagak udaleko lan jarduna utziko du. Ainhoa Arrozpide Landa zinegotzia (eskubikoa) izango da orain bigarren alkateordea.

OSAKIDETZAZ

**EHBilduren ustez,
“nahikoa motibo dago
alarma pizteko”**

lanean direnen gehiegizko lan-karga; betidanik egon diren hainbat zerbitzuen etena edo murrizketa; kontsulta presentzialak eskuratzeko geroz eta zailtasun handiagoak, baita adinekoen eta kronikoen jarraipenerako ere; osasun sustapena garatu ezina...

Mozioak argi ohartarazten du, “hau guztia ez da pandemiaren

errua”. Pribatizazioaren mesedetan osasun sistema publikoa “ahultzeko estrategia aspaldiko kontuak dira”. Mozioaren alde bozkatu zuen EHBilduk, aurka PSE-k eta EAJ-k.

Profesionalak kontratatzeke dauden zailtasunak kontuan hartzeko dela dio EAJk

EAJ-tik Josune Urkolak adierazi zuen mozioak ez ziola aipamenik egiten profesional gabeziari, edota profesionalak kontratatzeke dauden zailtasunei. PSE-tik bestalde, Patxi Suarez zinegotziak gogorarazi

zuen Gotzone Sagardui osasun sailburuak berak kultura alaketaz hitz egin zuenean, desegokiak izan zirela bere hitzak. Eta egun Osakidetzak dituen arazoak konpontzeko akordioa duela Jaurlaritzan PSE-k EAJ-rekin. “Bide horretatik joan nahi dugu”, Suarezek zioen, eta mozioaren kontra bozkatzeko zuela iragarri zuen.

Adierazpenon aurrean, udal gobernu taldetik erantzun zitzaien esanez, Sagarduik Osakidetzari lotuta sustatu nahi zuten kultura alaketa hiru hitzaldi ezberdinetan aipatu zuela eta hitz horiek zer esan nahi duten argi dagoela. “Nahikoa motibo dago alarma pizteko”, zioen Usurbilgo alkateak, baita mozioa udalbatzarrean eramatekoa ere. “Bagara nor” eta gai honi buruz “badugu zer esana” Osakidetzak bizi duen egoerarekiko kezka agertu, murrizketak salatu eta proposamenak egiteko udal gisa, nabarmendu zuten EHBildutik. Are gehiago, herrian bertan anbulatorioa izanda.

Aldaketak udal gobernu taldean

Uztailaren 21eko udalbatzarrean iragarri zuten, dedikazio osoz udalean lanean ari zen bigarren alkateorde Lur Etxeberria Gurrutxagak udaleko lan jarduna utziko du beste lan aukera bat sortu zaiolako, nahiz zinegotzi izaten segiko duen. Honek udal jardunaren antolaketan eta organigraman hainbat aldaketa eragingo ditu; aldaketa nabarmenena, Ainhoa Arrozpide Landa zinegotzia izango dela legegaldi hau amaitu artean, dedikazio

osoz jardungo den udal gobernu taldeko kide eta bigarren alkateordea.

Oriako hiru presa eraitsi nahi dituzte

Ibaia lehengoratzeko Santuena pareko Errotaberriko presa eraistera zihoazela ohartarazi zuela Usurbilgo Udalak berri eman genuen oporraldi aurreko azken aldizkarian. Ez da mugimendu bakarra izango. Txikiardi pareko Iturrate irlaren bueltan dauden Michelin 1, Michelin 2 eta Astea-

suainzarra presa txikiak eraisteko baimena eskatu du orain Gipuzkoako Foru Aldundiak, Uraren Euskal Agentziaren Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoak abuztuaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean berri eman zuenez. “Presa txikiak bota eta ateratzeko lanak dira” egin asmo dituztenak. Abuztuaren 17az geroztik 23 balioduneko epean baimen eskaera honi erreklamazioak aurkezteko epea zabalik dute interesdunek, aipatu bulegoan.

68 hautagai kontuhartzailletza lanposturako

Udaleko kontu-hartzailletza lanpostua bitarteko izaeraz eta oposizio lehiaketa bidez betetzeko deialdiko behin-behineko zerrendak abuztuaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituen Usurbilgo Udalak. 10 egun balioduneko epea zuten biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko. Iragarri berean, epaimahaia ere izendatu zuela berri eman zen.

Errefuxiatuen Egunari lotutako mozioa, ahobatez onartua

Errefuxiatuen Egunari lotutako mozioa gehiengo osoz onartu zuten uztailaren 21eko udalbatzarrean. Hainbat eskaera luzatzen dizkiote Espainiako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari; hala nola, nazioarteko babes aitoritzeko estandarrak eta babes hau eskatzen duten pertsonentzako harrera-sistema malgu eta iraunkorra bermatzea. Udalak bere aldetik ere zenbait konpromiso bere gain hartzen ditu; besteak beste, diskurtso diskriminatzailer eta xenofoboei aurre egitea. “Gu ere erbeste izan ginen. Eta gaur babes izatea dagokigu. Irromi sinesten dugu errefuxiatuen eskubideetan, eta harrera integrala eta duina emateko konpromisoa hartzen dugu”.

Melillako heriotzak

Bestalde, ekainaren 25ean Melillako mugan “historiako hondamendi humanitario larrienetako bat” salatzen duen



“Gu ere erbeste izan ginen. Eta gaur babes izatea dagokigu”, hala jasota dago uztailaren 21eko mozioan.

PSE-EE

Udal zinegotziak onartezintzat jo zuen Melillan jazotakoa eta horren aurrean Espainiako gobernuko presidenteak adierazitakoa

mozioa gehiengo osoz onartu zuten, EHBildu eta EAJ-ren al-

deko bozkekin, PSE-k kontra bozkatu zuen. 37 pertsona hil gutxienez eta dozenaka zauritu ziren Melillara iristen saiatzean, “indarkeria-irudi basatiekin, beroan itzulketekin eta migrazio-agintari aldetik Giza Eskubideen urraketa larriekin”. Melillako hondamendiari lotutako mozioak onartezintzat jotzen ditu Espainiako gobernuko presidenteak esandakoak, “egindako jarduerak

ulertu eta babestuz, eta Espainiako eta Marokoko segurtasun-kidegoek egoera ondo konpondu zutela adierazi zuten”.

Egoera honen aurrean, Usurbilgo Udalak “gure atsekabea eta salaketa irmoa adierazten dugu”, elkartasuna adieraztearekin batera “poliziaren jardun basatiaren ondorioz” hildako, zauritu eta haien senideei. Berehalako ikerketa independentea eskatzen du mozioak edota “giza eskubideetan oinarritutako migrazio-politikak bultzatzea”.

Aipatu moduan, EHBilduren eta EAJ-ren babesarekin onartu zen mozio hau, PSE-ko udal ordezkariak aurka bozkatu zuen. Patxi Suarezek adierazi zuenez, ez du partekatzen Espainia eta Maroko alde berean daudela parekatzea, baina onartezintzat jo zuen Melillan jazotakoa eta horren aurrean Espainiako gobernuko presidenteak adierazitakoa.

Aginagako Elutxeko hirigintza hitzarmena, betiko onartua

Horretarako finkaturiko epean erreklamaziorik ez da izan eta behin betiko onartu zuten uztailaren 21eko udalbatzarrean, Aginagako Elutxen oinezkoen bidea eta 27 etxebizitzak eraikitzea ahalbidetuko duen hirigintza hitzarmena. Exekuzio proiektua lantzen ari dira.

Udal lan deialdietarako tasa

Lan deialdi publikoetara aurkezteko ordaindu beharko

den tasa 10 eurokoa izango da. Tasa hau ordaintzen dutenen kasuan, norbere egoeraren arabera, hoberiak jasotzeko aukera izango dute.

Onarpen tramitazioa amaituta, udal dirulaguntza gehienen kasuan

Kultur egitasmoak garatzeko, kultur sorkuntzarako, etxebizitzaren alokairurako, igogailuak instalatzeko, ohiko kirol

egitasmoak sustatzeko, kirol elkarteak ez diren kirol jardueretarako, kirol egokituko jardueretarako, Gizarte Zerbitzuen arloko egitasmoetarako, deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko, desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txiki-koen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako edota langabeak kontratatzeke dirula-

guntza lerroak behin betiko onartu ditu Usurbilgo Udalak. Ebazpenak, abuztuaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu zituen. Behin-behinean onartu ditu baita aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako lerroa. 3 eskaera aurkeztu dira deialdira. Xehetasunak abuztuaren 19ko GAO-n kontsulta ditzakezue.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
karta · oilasko erreak, hanburgesak..
paellak enkarguz!
☎ 619 40 91 98
Zubiaurrea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03

Zuen publizitatea hemen
☎ 943 360 321
publizitatea@noa.eus

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Irubideko memoria-gunea azaleratzera doaz

Irailaren 18rako ekitaldia deitu du oroimen historikoa berreskuratzeko lanean ari den Usurbil 1936 elkarteak Irubiden. Zehazkiago esanda, Usurbildik Donostiara bidean, Txikierdi igaro eta N-634 errepidetik barrena, Errekaldara iritsi aurretik, N-634tik autopistara igotzeko dagoen bide zatian, Luzuriaga eta Iberdrolaren zentralaren parean. Eguerdiko 12:00etan, ondoko argazkiko eremuan hain zuzen, memoria-gune berri bat berreskuratzeko du Usurbil 1936 elkarteak, azken urteotan egiten ari den lanketari segida emanez.

Egun sinbolikoan gainera, irailaren 18an 86 urte beteko baitira tropa faxistak Usurbilen sartu zirenetik. “Aspalditik dakigu kolpistek, besteak beste Donostia, Usurbil eta Lasarte-ko jende andana erail eta lurperatu zutela eremu horretan.



Irailaren 18an, argazkiko eremuan, memoria-gune berri bat berreskuratzeko du Usurbil 1936 elkarteak.

FRANKISTEN IRITSIERA

Egun sinbolikoa da irailaren 18a, egun horretan 86 urte beteko baitira tropa faxistak Usurbilen sartu zirenetik

Leku hori exekuzio gune bat zela berresten duten testigantza ugari dago”, diote Usurbil 1936 elkarteak. Hilaren 18ko ekitaldian bertan “oroigarri bat

jarriko dugu”, iragarri dute.

Lekukotzei esker hain zuzen, bertan fusilatutakoen artean Igara bizilekua zuen Jose Heredero Pinela usurbildarra eta Juan Antonio Irulegi andoaindarra zeudela berresten duten “zantzu asko ditugu”. Horregatik eremu horretan oroigarria kokatu nahi dute, Pinelari, Irulegiri eta “zorigaitzeko hilobi horretan egon daitezkeen beste herritar guztiei aitortza egiteaz gain, urteetan ezkutuan egon-

dako bidegabekeria nolabait ikusgarri egiteko”.

Usurbil 1936 elkartetik irailaren 18ko ekitaldian oroituak dituzten bi fusilatuei buruzko zehaztasunak eskaini dizkigute. Jose Heredero Pinela, aipatu moduan Usurbilen jaioa, ezkondu eta Donostiara bizitzera joan zen. “Txofer lanetan ibiltzen zen. Igarako autobus linea sortu zuen inguruetako baserritarrek beren ekoizpenak Donostiara saltzera eraman zezaten”. 1936ko urriaren 3an, 33 urte zituela fusilatu zuten Irubiden. Bi egun beranduago, fusilatu zuten eremu berean Juan Antonio Irulegi Ulanga andoaindarra. “Donostiako Alde Zaharrean Intza taberna zeukan Paulina Garmendia emaztearekin. Abertzalea zelakoan, atxilotu eta Irubiden desagerrarazi zuten”. Usurbil 1936 elkartetik oroimen ekitaldi honetan parte hartzeko gonbita luzatu dute.

BERTSO AFARIA

IRAILAK 23, OSTIRALA

20:00. Oianume, Urnieta. 30€

Txartelak: Kantoj, Matxo, Oianume, Eraitza, Aiurri

Maialen Lujanbio

Ametz Arzallus

Gai-jartzailea: Amaia Agirre

EUSKARALDIA

Txartelak salgai irailaren 7tik aurrera

ANTOLATZAILEAK:

AIURRI

Poxta Zahar

Erraztasunak eta dirulaguntza potoloak, euskara ikasteko

Ikasturte berriarekin batera, euskaltegietara joko dute eskualdeko herritar askok, euskara ikasteko zein berreskuratzeko, hizkuntza maila hobetzeko, agiriren bat lortzeko... Eta saiakera horretan, bidelagun izango dituzte Buruntzaldeko sei udalak ere, matrikularen kostu osoa edo zati handiena lagunduko baitiete diruz. HABEK ere emango ditu dirulaguntzak, horretarako.

Hemen da ikasturte berria, eta oporraldian pilak kargatuta, iritsi da urteroko ohitura onak berreskuratzeko garaia ere. Horietako bat, askorentzat, izaten da euskaltegira hutsik egin gabe joatea, euskara ikasteko zein berreskuratzeko, hizkuntza maila hobetzeko, edota egunerokoan zein lan munduan aukera berriak zabalduko dizkieten ezagutza eta agiriak lortzeko.

Helburua edozein dela ere, bere neurrira egindako aukerarik ez dute faltako Buruntzaldeko herritarrek, beste urte batez, eskualdean bertan: udal euskaltegiek zein AEK euskaltegiek, maila eta behar guztietara



Buruntzaldeko euskaltegietak kideak eta udaletako euskara zerbitzuen ordezkariak, bat eginda, Andoainen ateratako argazkian.

ESKAINITZA ZABALA

“Helburua edozein dela ere, bere neurrira egindako aukerarik ez dute faltako Buruntzaldeko herritarrek”

egokitutako eskaintza daukate aukeran, egun eta ordutegi ezberdinetan.

Eta euskaltegiek erraztasunak ematen badituzte euskara ikasi edo indartzeko, are gehiago errazten dute eskualdeko sei udalek, horretara bideratutako dirulaguntzekin, euskararen erabilera normalizatu eta helduen alfabetatze eta euskal-

duntzea sustatzeko bidean.

Ikasturtean zehar euskara ikasteko, oso potoloak dira eskaintzen dituzten dirulaguntzak. Kasurik apalenetan, matrikularen %70a laguntzen dute diruz; baina oro har, hortik gorakoak dira dirulaguntzak, baita %100ekoak ere, kasu askotan. Baldintzak, berriz, ez dira zorrotzak: nahikoa da udalerrian erroldatuta egotea, 16 urtetik gorakoa izatea, eta asistentzia minimo bat betetzea (%80-85ekoak).

HABEren dirulaguntzak

Buruntzaldeko sei udalek eskaintutako dirulaguntzez gain, HABEK (Helduen Alfabetatze

tze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) ematen dituenak ere eskuragarri daude.

Kasu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden guztiek egin dezakete eskaera, baldin eta aurreko ikasturtean gainditu bazuten HABEren ikastaro edo mailetakoa, homologatutako euskaltegi batean zein autoikaskuntzarako zentro batean, edota HABEren egiaztatze-deialdietan agiria eskuratuta.

Gainditu edo egiaztatu duen maila bakoitzeko, ikasleak eskuratu dezake 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetako matrikuletan ordaindutako kopurua, gehieneko muga hauekin, mailaren arabera: A1 mailan, 600 euro; A2 mailan, 800 euro; B1 mailan, 900 euro; B2 mailan, 1000 euro; C1 mailan, 700 euro 1992an edo ondoren jaiotakoentzat, eta 150 euro 1991n edo aurretik jaiotakoentzat; eta C2 mailan, 100 euro.

Kasu batzuetan, HABEren dirulaguntza ez da udalek emandakoekin bateragarria; eta gainerakoetan, bi dirulaguntzen baturak ezingo du matrikularen kopuru osoa gainditu.

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Andoain

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Andoainen erroldatuta egotea (sei hilabete lehenagotik) eta %85eko asistentzia.

Dirulaguntzak: matrikularen %85a gehienez ere, baina %100a ere izan daiteke kasu batzuetan. Barnetegietan, ostatu gastuen %50a gehienez ere.

Astigarraga

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Astigarragan erroldatuta egotea (adin txikikoen kasuan, gurasoetako bat behintzat hala egotea), %85eko asistentzia edo ikasturtean gutxienez urrats bat gainditzea, eta egin beharreko ebaluazio probak egitea.

Dirulaguntzak: matrikularen %100a, hainbat kasutan. Gainerakoek, matrikularen %75a. Gehienez ere 743 euro.

Hernani

Baldintzak: Hernanin erroldatuta egotea, eta %85eko asistentzia.

Dirulaguntzak: matrikularen %100a, hainbat kasutan. Gainerakoek, matrikularen %70a, %75a edo %90a.

Lasarte-Oria

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Lasarte-Orian erroldatuta egotea (ikastaroak irauten duen epe osoan), %85eko asistentzia eta gutxienezko aprobetxamendua gainditzea, eta

ikastaro hauetakoren bat egin izatea: euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa (gutxienez 80 ordu), barnetegia (gutxienez hilabete segidan), edo udako ikastaroa.

Dirulaguntzak: matrikularen %85a gehienez ere.

Urnietea

Baldintzak: Urnietan erroldatuta egotea, %80ko asistentzia eta aprobetxamendu ona izatea.

Dirulaguntzak: matrikularen %100a gehienez ere langabetuentzat, eta %85a gehienez ere lanean ari direnentzat. Gehienez ere 600 euro. Udako ikastaroetan, 200 euro. Barnetegiko ikastaroetan, matrikula

gastuak bakarrik lagunduko dira diruz.

Usurbil

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Usurbilen erroldatuta egotea, %80ko asistentzia, eta gutxienezko aprobetxamendua gainditzea. Ikastaroak iraun bitartean erroldan alta edo baja emanez gero, ikasturtean zehar erroldatuta egon den denboraren proportzioan jasoko da dirulaguntza. Dirulaguntzak: matrikularen %100a, 600 euroko mugarekin. Eskaera kopuruak dirulaguntzetarako aurreikusitako partida gaindituz gero, proportzionalki murriztuko dira dirulaguntzak.

Buruntzaldeko udalek %70 - %100 artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**

Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!

ANDOAIN

Andoingo AEK
Plazaola, 2
943 591 704
andoain@aeek.eus

LASARTE-ORIA

Muntteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea, 17 behe
607 625 233
lasarte@aeek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi, 11
943 557 801 - 607 592 864
Zilegi eskola: 663 043 314
hernani@aeek.eus

USURBIL

Etumeta AEK Euskaltegia
Kale Nagusia, 43 behe
607 609 379
usurbil@aeek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia, 48
607 610 687
astigarraga@aeek.eus

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren gainean)
943 361 621
euskaltegia@lasarte-oria.eus

Hernaniko Udal Euskaltegia

Karobieta, 63
(anbulatorio zaharra)
943 331 896
euskaltegi@hernani.eus

URNIETA

Urnietako AEK
Errekalde kalea, 1 (tarteko oina)
662 338 747
urnieta@aeek.eus



Andoingo Udala
Goiko plaza, zig
20140 Andoain



Astigarragako Udala
Foru erparantza
20115 Astigarraga



Hernaniko Udala
Gudarien plaza, 1
20115 Hernani



LASARTE-ORIA
Lasarte-Oriako Udala
Kale Nagusia, 22
20160 Lasarte-Oria



Urnietako Udala
San Juan plaza, zig
20130 Urnieta



Usurbilgo Udala
Jose Martin Sagardia plaza
20170 Usurbil

Atxegalden jaiek etenik ez

Oiardo Kiroldegiko tamian eginiko kick boxing ikastaroarekin hasi ziren Atxegaldeko jaiak. Eskaintzak hainbat herritar eta auzotar erakarri zituen kiroldegira. Oinarrizko teknikak ikasi eta lehen ukalbikadak eta ostikadak emateko aukera izan zuten bertaratutakoek. Giro ezinhobean goizpasa ederra egiteko aukera izan zuten.

Mus txapelketako irabazleak

Abuztuaren 27an, gaztetxoek txokolatea hartu eta buruhandien aurretik korrika ibili bitartean, mus txapelketan aritu ziren ia lau orduz helduak. Juanlo eta Juan Manuelek irabazi zuten txapela, bigarren Larraín eta Txoko izan ziren, Furun eta Zabak hirugarren postua erdietsi zuten eta Unax eta Joseba ere sarituak izan ziren laugarren postuarekin.

Gauean, kontzertu sortaren aurretik, Elene eta Maddiren gitarra eta ahots soinuek afa-



Goizpasa ederra egiteko aukera izan zuten kick boxing ikastaroan izena eman zutenek.

ATXEGALDEKO JAIETAN

“Juanlo eta Juan Manuelek irabazi zuten mus txapelketa”

ria girotu zuten. Plaza beteta, afalordua borobiltzeko aukera izan zuten.

Antonio Guadix garaile tokan

Abuztuaren 28a lehiaketen eguna izan zen Atxegalden. Norgehiagokan aritu ziren jaiei agur esan baino lehen. Goizean, toka txapelketan 13 partehar-tzaile izan ziren, eta Antonio Guadixek lortu zuen garaipena 8 tokerekin.

Bigarren Prudencio Olano izan zen 7 tokerekin eta hiru-

garren posturako berdinketa hautsi behar izan zuten Manuel Guadix eta Pepe Guadix anaiek. Azkenean, hirugarren postua Manuelek erdietsi zuen anaiari hiru tokeko aldea aterata.

Toka txapelketa jokatu bitartean, plazara hurbildutakoek aukera izan zuten salda beroa txorizo eta haragi egosi pintoarekin hartzeko.



Larunbat arratsaldean, abuztuak 27, gaztetxoek txokolatea hartu eta buruhandien aurretik korrika ibili bitartean, helduak mus txapelketan aritu ziren ia lau orduz. Juanlo eta Juan Manuelek irabazi zuten txapelketa.



Antonio Guadix nagusitu zen toka txapelketan.



Elene eta Maddiren gitarra eta ahots doinuek girotu zuten kantu afaria.



Antonio Guadix nagusitu zen toka txapelketan.

Ekitaldi ugari eta giro ederra Zubietako festetan

Donostiako Txistulari Bandaren doinuari segika iritsi ziren dantzariak Zubietako Errebote plazara. Ohiturari jarraituz, ikuskizunaz goatzera hurbildu ziren ikusle batzuk dantzan jarri zituzten.

Donostiako Txistulari Banda goizean goizetik hasi zen Santio eguna girotzen. Meza nagusia eta gero soka-dantzan hartu zuten parte. Aspaldiko partez, gazte asko aritu ziren dantza saioan. Santio Eguneako ohiturak hortaz, etorkizun oparoa du aurretik.



Aspaldiko partez, gazte asko aritu ziren dantza saioan. Santio Eguneako ohiturak etorkizun oparoa du aurretik.



Uztailaren 30ean sagardo dastaketa egin zuten Zubietan. Urdaira, Arratzain, Aialde Berri, Iruin, Araeta, Satxota, Zabala, Calonge, Saizar eta Izeta sagardotegietako botilak zerbitzatu zituzten.



Zubietako frontoiko zorua irriskorra zegoen. Arriskua ekidin asmoz, Errebote plazan jokatu zen bigarren partida. Bertaratutakoen harriidurarako, Oinatz Bengoetxeak berak proposatu zuen aldaketa.

Dantzarako gogoz itzuli ziren Xanistebanak



San Esteban eguneako meza-
ren ondoren, bertaratutakoek
hamaiketako ederra dastatu
ahal izan zuten. Eta hamai-
ketako goxoa dastatuta, Ur-

daiagako plazara igotakoek
Orbeldi Dantza Taldeko be-
launaldi gazteenaren ema-
naldi biziaz gozatzeko auke-
ra izan zuten.



Jaien amaierako eskaintza
handiena txikienei zuzendua
egon zen. Marrazten hasi zu-
ten eguna, eta jolasean igaro
zuten eguerdi partera arte;

aulki nahiz globo jolasetan
dena eman zuten bai auzoko
nahiz auzora joandako gaz-
tetxoenek. Eta arrapaladan
irten ziren gero buruhandiak.

Santueneko Jai Batzordea: “Elkarlanean antolatutako jaiak dira gureak”

Santueneko jaiak datorren astean emango diete hasiera auzotarrek eta jada dena prest dute asteburu horretan jai giroan murgiltzeko. Aurten, argazki lehiaketa bat ere proposatu dute “Santueneko jaiak” gaitzat hartuta eta irailaren 30 arteko epea izango da parte hartu ahal izateko. Berrikuntza gehiago ere badira aurten. Kontu horiei buruz eta beste hainbatez aritu dira NOAUA!rekin Oihana Ibarra eta Eneko Toledo Jai Batzordeko kideak.

NOAUA! Pandemia garai bate-tik gatoz. Jai Batzorde askotan eragina izan du horrek. Zuen kasuan, nola dago Jai Batzordea?

Eneko Toledo: Pandemiak Jai Batzordean aldaketa nabarmenak sortu ditu. Ez dakit pandemia den kausa nagusia, baina normaltasunez ospatu ziren azken festetatik asko aldatu da Jai Batzordea. 2019an lehen le-
rroan lanean zebiltzan kide gehienek utzi egin dute. Lehen ere ohikoa zen jendeak Batzordea uztea, baina urtero bat edo beste baino ez zen izaten. Oraingoa izugarritzko aldaketa izan da. Beldur ginen hasieran, lehendik ohituta geunden lan egitera eta



Eneko Toledo eta Oihana Ibarra, Jai Batzordeko kideak.

JAI BATZORDEA

“Oso eskertzekoa da Santueneko Kultur Elkartek jaien antolakuntzan izan duen partehartzea”

antolakuntzan erabakiak hart-
zera, baina ez neurri honetan. Normalean, zaharrenek har-

tzen zituzten erabaki gehienak, eta orain, berriz, guri dagokigu lan hori. Erronka berriei aurre egiten ari gara.

Oihana Ibarra: Belaunaldi arteko aldaketa nabarmena gertatu da. Gaztetxo asko animatu da eta guk ikasi ahala erakutsi ere egin behar izan dugu. 10 bat kide gara orain. Ohi baino Jai Batzorde gazteagoa gara.

Jaiak antolatzerakoan bakarrik aritu zarete edo auzoko eragi-leak ere tartean izan dira?

E. T: Oso eskertzekoa da Santueneko Kultur Elkartek jaien antolakuntzan izan duen partehartzea. Orain arte ere haurrei lotutako ekintza ugariz arduratzen ziren, eta aurten ere ez da gutxiagorako izan. Lan karga handia kendu digute gainetik. Gu izango gara jarduera horietaz arduratuko direnak nagusi, baina beti prest daude laguntzeko eta jaietan ere haien partehartzea beharrezkoa izango dugu.

O. I: Jai Batzordeak darama nolabaiteko aginte makila, baina oinarritzko zutabe ditugu. Elkarlanean antolatutako jaiak dira gureak. Umeen eguneko ekitaldiak antolatzeaz arduratu dira batik bat eta larunbatean partehartze aktiboa izango dute plazan. Belaunaldi aldaketa honetan ere, nabari dugu haiek orain arte egin izan duten lana eta egun oraindik egiten dutena eta oso eskertzekoa da hori.

Kurtso osoan zehar ere lan bikaina egiten dute auzoari bizia ematen. Hasieratik elkar-
tean egon diren horietako asko jada kide ez badira ere, beti daude laguntzeko prest eta hori ere oso eskertzekoa da.

“Txosna egongo da baina ez da betiko txosna izango”

NOAUA! Berrikuntza batzuk proposatu dituzue aurten. Agian zenbaitek entzungo zuten: ez dela txosnarik izango.

Oihana Ibarra: Azkenean, bai, txosna izango da Santueneko. Ez da, ordea, betiko txosna izango. Garagardoa eta kalimotxoa baino ez ditugu izango eta likoreren bat edo beste.

Eneko Toledo: Kubatak nahi di-

tuiztenek tabernetara jo beharko dute.

Nolatan erabaki hori?

O. I: Hasieran ez genuen arriskurik hartu nahi. Lau pertsona baino ez ginen jaiak antolatzen hasi berritan eta gehiegizkoa zen eguneko ekitaldiez gain, gauero txosnako lana egin beharra lauren artean. Hartu genuen lehen erabakia hori izan

zen, txosna kentzea. Gazte-
txoak etorri ziren gero, eta be-
tiko txosna jartzera animatu ez
bagara ere, oinarri-oinarritzko
edariak izango dira. Datorren
urterako ikusiko ditugu gauzak
nola diren eta txosnarekin zein
erabaki hartu behar diren.

E. T: Txosna bera egongo da, baina ordutegi aldetik ere al-
daketak izango dira ziur aski. Normalean, goizaldera arte

txosna irekita egoten zen eta
ondoren, goizean berriz ire-
kitzen zuten egun osorako. Hori
aurten ez da posible izango eta
agian, txosna par-
randarako irekiko dugu eta
ondoren, arratsaldean irekiko
dugu. Oraindik ez dugu era-
baki tinkorik hartu txosnako
ordutegietaz, baina ordutegi
malguagoak izango direla,
hori ziur.

“Auzo-bazkarirako txartelak auzoko zein Usurbilgo tabernetan jarriko ditugu salgai”

**NOAUA! Gauetan, DJ proposa-
mena luzatu duzue bestelako
kontzertu edo erromeriarik
gabe.**

Oihana Ibarra: Aurrekontu alde-
tik ez daukagu dirua sobera eta
zerbait gordeta izan nahi dugu
badaezpada ere.

Eneko Toledo: Lehen txosna zen
diru iturri garrantzitsuetako
bat. Orain hartu dugun eraba-
kia ikusita, alde horretatik ez
dugu horrenbesteko etekinik
izango, edo ez dugu uste be-
hintzat. Gauza batek bestea
dakar, nolabait. Aurrekontu-
tik ez genuen pasatu nahi eta
horretarako erabaki egokiena
DJen aldeko apustua egitea
iruditu zaigu. Auzoko DJ Gor-
ka Mendinueta izango da le-
hen gauean, adibidez.

**Lehen aldia da karro-kalejira
antolatzen duzuen Santue-
nean. Zertan datza?**

O. I: Ekintzak antolatzerako
gariaian, aurrekontuari begira-
tu diogu eta saiatu gara ahal
den neurrian dirua gordetzen.
Kalean bizitasun pixka bat jar-



“Aurrekontutik ez genuen pasatu nahi eta horregatik erabaki egokiena DJen aldeko apustua egitea iruditu zaigu”.

‘BALKOI PREMIYUA’

**“Balkoirik ederrenak
saria izango du aurten.**

**Auzotarrak animatu
nahi ditugu ekintza
honetan parte hartzera”**

tzeko, Jai Batzordeko karro
bat prestatu dugu musika jar-
tzeko. Bozgorailu bat ere erosi
dugu karroaren barruan jar-
tzeko eta urteak iraungo duen
tramankulu bat sortu dugu

datozen urteetako Santueneko
jaietan ere erabiltzeko. Kalejira
moduko bat egingo dugu musi-
karekin auzoko kaleetan zehar.

Eta ‘balkoi premiyua’?

E. T: Auzoko balkoirik ederre-
nak saria izango du aurten.
Balkoirik ez duenak leihoa
apain dezake. Auzotarrak ani-
matu nahi ditugu ekintza ho-
netan parte hartzera auzoari
bizitasun pixka bat eman eta
saria irabaztera. Auzoan festak
direnean girlandak jartzen ditu-

gu plazan eta ez gara gehiago
nekatzen ezer apaintzera, eta
oso ideia polita iruditu zaigu
plazatik auzo osora zabaltzea
jai giro hori. Garaileak otar eder
bat irabaziko du eta, beraz, me-
reziko du animatzeak.

**Pala txapelketa ere egitarauan
daukazu.**

O. I: Izen-ematea egunean ber-
tan egin beharko da, hau da,
hilaren 11n. Behin parte har-
tzaile kopurua ikusita eraba-
kiko da torneoa nolakoa izan-
go den. Finala, berriz, hilaren
15ean izango da.

**Azken egunean herri-bazkaria
izango duzue. Txartelak non
eta zein preziotan eskura dai-
tezke?**

O. I: Herriko tabernetan jarriko
ditugu salgai eta auzoko ta-
bernetan ere bai, noski: San-
tueneko Zaharren Egoitzan,
Tragoxkan, Artzabalen eta
Aitzagan. Txartel bakoitzak 20
euro balioko du eta jada jarrita
ez badaude, datozen egunetan
prest egongo dira.

Lehiaketa ugari antolatu dituzte Santuenean

Irailak 16 ostirala: Etxean egindako tortilarik onena argitzeko lehiaketa

Etxetik eginda eraman be-
harko da frontoira, eta on-
doren, epai-mahaiak era-
bakiko du zein den onena.
Afaria egingo dute gero, eta
tortila han banatuko badute
ere, bakoitzak bere janaria
eraman beharko du tortila
gutxiegi izanda ere.

Irailak 17 larunbata: Mus zaleen eguna

Herri eta auzoetan tradi-
zio handiko ekintza izan

ten da mus txapelketa, eta
mus zale amorratuek aukera
izango dute aurten ere euren
maila erakusteko. Irailaren
17an izango da hori. Parti-
dak 16:00tan hasiko badira
ere, izena eman ahal izateko
orduerdi lehenago hurreratu
beharko dute txosnagunera
interesa dutenak. Bikoteko
20 euro ordaindu beharko da
jokatu ahal izateko.

Lau onenek sari bikainak es-
kuratu dituzte: lehen saria bi
txapel, bi trofeo, bi pertsonen-
tzako afaria, bi marisko lote,
onddo otar bat eta bi xanpain
botila izango dira. Bigarrenak

ere sari ederrak lortuko dituz-
te: bi trofeo, zortzi txuleta, bi
gazta eta bi xapain botila. Hi-
rugarrenentzat ere badaude sa-
riak: lau txuleta eta bi xanpain
botila. Azkenik, laugarrenak
bi baserriko oilasko eta bi
xanpain botila eramango di-
tuzte etxera. Bada zer irabazi
Santuenean.

Balkoirik ederrena zein den argituko dute jaietako azken egunean

Aurtengo Santueneko jaietan
lehiaketa ugaritan parte har-
tzeko aukera izango da, eta

berrikuntza nagusia “balkoi
premiyua” izango da.

Igande honetan eman behar da izena

Irailaren 11n, goizean, fron-
toian zenbakiak banatuko
dituzte balkoi bakoitza izen-
datzeko. Egun horretan zen-
bakia hartzerik ez duenak,
auzoko tabernetan izango
du aukera aste osoan zehar
zenbakia hartzeko. Astean
zehar, auzokoek aukera izan-
go dute txosnan politenaren
aldeko botoa emateko. Hila-
ren 18an, igandean, garailea
izendatuko dute.

Tren geltoki berria eraikitzeko hitzarmena erdietsi dute

Geltoki berria “eraikitzeko hitzarmena itxi dugu”, berri eman zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak iragan uztailaren 21eko udalbatzarrean. “Legealdian zehar, hartu-eman etengabea izan” ostean, Udalak eta Euskal Trenbide Sareak (ETS) erdietsitako adostasunari buruz ari zen. Eta xehetasun gehiago ere eman zituen; “lanak esleitzeko iraila amaieran kontratazio mahaia osatuko du ETS-k”. Egitasmoa uztailan aurkeztu nahi zutela berri eman zuen egun haietan Udalak, baina hilabete honetan aurkeztekoak dira.

Aste haietan Kaxkoa, Etxealdia eta tren geltokia lotzen dituen “San Esteban kalerako Udalak duen urbanizazio proiektua eta ETSren geltoki



Etxealdia jaisteko San Esteban kalea irisgarri bilakatu eta oinezkoak lehenesteko asmoa du Udalak. Horrek lotura izan beharko luke geltoki berriaren proiektuarekin.

UDALA ETA EUSKAL TRENBIDE SAREAK

“Iraila amaieran lanak esleitzeko kontratazio mahaia osatuko du Euskal Trenbide Sareak”

berriarena bateratzeko ahaleginetan” aritu baitziren. Hala, Udalak ETS-ri bere egitasmoan aldaketa batzuk txertatzea eskatu zion, “geltoki berriak gure proiektuari kalterik egin ez diezaion”.

Osoko bilkura berean onarturiko kreditu aldaketari buruz

ari zirela egin zioten aipamena tren geltoki berriaren proiektuari. Kreditu aldaketaren baitan hain zuzen, Etxealdia jaisteko San Esteban kalea irisgarri bilakatu eta oinezkoak lehenesteko egitasmoari buruz ari zirenean. Aipatu kalea eta bertako azpiegiturak berritzeko 175.000 euroko kreditua onartu zuten idazten ari diren egitasmo horren lehen faserako. Etxealdiarako hain zuzen hiru proiektu ezberdin iragarriak ditu udal gobernu taldeak; batetik, San Esteban kalea berritzearena, bestetik auzoa irisgarri bilakatzearena eta azkenik, tren geltoki berriaren proiektua. Egitasmo hauei buruz hitz egiteko Etxealdia joan asmo du hilabete honetan udal gobernu taldeak. “Elkar eragiten duten hiru proiektu dira”, ohartarazi dute EHBildutik.

“100 metro ekialderago” eraikiko da

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde, Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak uztailaren 5ean kaleratu zuen ebazpenarekin ontzat eman zuen “Usurbilgo geltokia eraikitzeke proiektuaren eguneratzea”. Lanen lizitazioa 9.758.726,19 euroan finkatu zuen, BEZ barne. Eta obrak amaitzeko 29 hilabete beharko zirela aurreikusi ere bai.

Proiektuari buruzko zehaztasun gehiago ere ematen ditu ebazpenak. Egitasmo honen baitan, “bideak konpondu eta eraikin berria eraikiko da kokaleku berri batean”. Bai, “100 metro ekialderago”, Etxealdiatik hurbilago beraz, “egun geltokira sartzeko bide nagusiak” Atallu aldera nahiz Kaxko alderako bideak, “elkartzen diren tokian (hirigunearekin lotzen duen

pasabidea, trenbide-igarobidea...) eta autobus-geltokiaren alboan”. Jaurlaritzaren esanetan, “etorkizuneko geltokiarantz toki ezinhobea da”.

Aipatu pasabideok oinezkoen komunikazio bide nagusia Kaxkoa, Etxealdia, Atallu eta Santuenea artean-irisgarriak izatea bermatuko da, “bai Usurbilgo hirigunetik, bai errepidetik eta inguruko industriaguneetatik”. Beste jarduketak batzuen artean, “egungo igarobidea erauntsi eta berria egitea aurreikusten da, akabera hobeekin, eskailerekin, igogailuarekin eta erabiltzaile guztientzat irisgarria izan dadin beharrezko elementuekin”. Usurbilgo Udalak aurreratua zuen moduan, egun Atallu, Etxealdia eta Kaxkoa lotzen dituen zubiko pasabidea luzatu egingo da eta eskilara nahiz

igogailu bidez gerturatu ahalko gara bertatik geltokira. Errekalden dagoenaren antzekoa izango da. Egungoak ez bezala, berriak trenbidea gainetik zeharkatuko du eta beraz, trenbideko igarobide arriskutsua ezabatuko da. Eusko Jaurlaritzatik gaineratu dutenez, “jarduketaren ingurunea berriz urbanizatu egingo da; alboko parkea berritu eta eremua birlandatuko da”.

Oinezkoen onerako

Eusko Trenbide Sareak-en geltokiak estandarizatzeko eta egun hainbat geltokik dituzten arazoei eurre egiteko apustuaren baitan kokatzen da Usurbilgo geltoki berriaren eraikuntza; “hala nola, mantentze-lanen kostu handia, irisgarritasun-zailtasunak, erraizetatik igoartzeko pasabidea, nasa estuak, laburrak eta

unitatetik tarte handia dutenak...”. ETS-k eskuliburu bat sortu zuen “alderdi estetikoak eta diseinua arautzeko alderdi funtzionalak zehazteko. Kontratu horren barruan idatzi zen Usurbilgo Geltokia Modernizatzeko Eraikuntza proiektua, Bilbo-Donostia linearen barruan”. 2010ean idatzi zuen ETS-k geltoki berria eraikitzeke proiektua baina alboratu egin zuen. Proiektua berridazten hasi ziren 2020an eta “Udalari hitz eman zion oraingoan gauzatu egingo dutela. Udalak proiektua egokitzeko hausnarketa egin zuen, oinezkoen mugikortasuna erosoagoa izan dadin, eta ETSri planteatu: begi onez hartu zituzten. Lizitazioa abiatzeaz, proiektua gauzatze bidean da” orain, Udaletik adierazi dutenez.

Erraustegiak geratzeko giza katea egingo dute igandean Donostian

Erraustegia ez Bergaran, ez Donostian aldarripean giza katea deitu du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, aurreko urteetan egin ohi duen moduan, Donostiako Alderdi Ederretik Kontxako hondartzara, estropaden bigarren jardunaldi egunean, igande honetarako, irailak 11, goizeko 11:00etan. Aldarri beraren baitan sartu dute, azken hilabeteotan hizpide izan eta protestak eragin dituen Bergaran eraiki nahi duten erraustegia, eta nola ez, Zubietakoa. Azken honen kasuan, uda honetan Arkaitzerreko kutsadura izan dugu albiste. Apartsu eta gorritsu ikusi genuen uztaillean, eta abuztuan zehar ere gorritsu ikusten segi dugu.

Usurbilgo Udalak uztailaren isurketen harira hartutako laginen emaitzak plazaratu zituen uztaila amaieran; “ezohiko maila oso altuak jaso dira kloruroetan, amonioan, konduktibitatean eta DQOn (Oxigenoaren Eskaera Kimikoa)”. Eta hori gutxi balitz, 2020ko maiatzeko isurketan topatutako amonio kopuruaren ia bikoitza aurkitu dute. “Orduko hartan, amonio kontzentrazio oso altua topatu zen (62 miligramo/litroko), eta lehengo asteko laginak ia bikoiztu egin du kopuru hori (117 miligramo/litroko)”. Emaitzak GHK-ri, Ura Agentziari eta Aldundiari helaraztekoa zen Udala, azalpenak nahi dituela gal-



Kontxako Banderaren harira, tren zerbitzua indartu du Euskotrenek.

ALDERDI EDERREN

“Aurreko urteetan egin izan duen moduan, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak deitu du eta Donostiako Alderdi Ederretik abiatuko da. Igande honetan, irailak 11, goizeko 11:00etan”

degitearekin batera; isurketa zerk eragin duen, zer ondorio izan ditzakeen eta halakorik ez errepikatzeke zein neurri hartuko diren argitzea eskatu du Udalak.

Kontxako Banderan, herrikideak lehian

Erraustegia geratzeko giza katea Kontxako Bandera nork irabaziko duen jakingo dugun

egun berean izango da. Usurbildarrak daude urtero moduan, ontzi ezberdinetan lehiakideen artean. Gizonezkoen artean, bigarren postuan sailkatua den Hondarribian Alex Udabe, bosgarren den Orion Josu Ostolaza eta zortzigarren postuan den Ondarroan Iñaki Errasti.

Tren zerbitzu bereziak

Kontxako Banderaren harira, tren zerbitzua indartu du Euskotrenek irailaren 11rako. Orduotan ere trena igaroko da Usurbildik; 9:35, 9:54, 10:35, 10:54, 11:35. Horiek tren zerbitzu bereziak. Ohikoak ere izango dira; igande goizetan 60 minuturo izaten dira 8:24an hasita.

Informazio gehiagorako:

- euskotren.eus
- 944 333 333

Enrique Abril errebote txapelketa abian da

Euskal Herriko 9 klubek eman dute izena aurtengo edizioan, tartean, Gipuzkoako bi taldek: Txost eta Zubietak. Eguraldiak ez badu baldintzatzen txapelketaren martxa, urriaren 9an jokatu da finala, Zubietako errebote plazan.

Hiru multzotan lehiatuko dira parte-hartzaileak:

A multzoa

- Luzean (Donibane Lohizune, Lapurdi).
- Senpere (Lapurdi).
- Zaharrer Segi (Baigorri, Nafarroa Beherea).

B multzoa

- Endaiarrak (Lapurdi).
- Kapito Harri (Uztaritze, Lapurdi).
- Zubietak (Gipuzkoa).

C multzoa

- Noizbait (Hazparne, Lapurdi).
- Txost (Oartzun).
- Kanboarrak (Lapurdi).

Finala, urriaren 9an

Lehenik itzuli bateko ligaxka jokatu dute multzo bakoitzean, irailaren 4ko jardunaldian hasi eta irailaren 25era bitartean. Partida guztiak Oartzungo, Villabonako eta Zubietako plazetan izango dira. Gauzak ondo, urriaren 2ko asteburuan jokatu dira finalerdiak eta urriaren 9ko jardunaldian final handia, Zubietako plazan.

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 19/22

20170
USURBIL

Uraitz, s.l.

Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

Aisialdi tartean zer egin erabakitzeke garaia

Bada non aukeratua aurten ere. Ikastaro eskaintza zabala iragarri dute herri eragileek. Behin-behineko informazioa da lerrootakoa. Asteotan eguneratzen joango gara.

Sagarrondotik Sagardora

“Sagarraren heldutasun-analisiak” izeneko ikastaroa antolatuko du Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak. Irailaren 9rako aurreikusia bazegoen ere, hilaren 16ra atzeratu dute. 15:30-18:30 artean izango da Potxoenean. “Aitor Etxeandiarren eskutik, sagarraren heldutasuna neurtzeko teknikak ikasiko ditugu, sagarrondoetatik noiz bildu behar diren antzemateko”. 15 laguntzako lekua izango duen saiorako izena usurbilkultura.eus edo alkartasuna.eus bidez eman ahalko da.

Etumeta AEK euskaltegia

Zabalik du urriaren 1ean hasiko duten ikasturte berrirako matrikulazio epea. Aurten go-goan izan, C2 titulua eskuratzeko taldea osatzeko ahalegi-



Sagarrondotik Sagardora ikastaroko hitzaldia irailaren 16an egingo da azkenean, 15:30etik aurrera Potxoenean.

ETUMETA AEK EUSKALTEGIA

“Urriaren 1ean hasiko dute ikasturte berria eta dagoeneko zabalik da matrikulazio epea”

na egin nahi du Etumeta AEK euskaltegiak. Gainerakoan, ohi bezala, euskara ikasteko mai-

la guztiak, azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak, mintzamenari lotutakoak, autoikaskuntza... Eskaintza zabala aurten ere. Izena astelehenetik ostiralera, ordutegi honetan eman ahalko da; goizez, 11:00-13:00 artean eta arratsalde, 17:00-19:30 artean (ostirala izan ezik).

■ Informazio gehiago: Nagusia, 43 behea 607 609 379

usurbil@ae.eus
muntteri.blogspot.com.es

Kantu Taldea

Irailaren 24an itzuliko dira berriz plazara Usurbilgo Euskal Kantu Taldekoak, 12:30ean Mikel Laboa plazatik abiatuko duten kantu-jirarekin. Aurrez hasiko dituzte ordea entsegu saioak; astelehenero biltzen segiko dute, 18:00etan hasita Agerialdeko musika gelan.

Helduen Heziketa Eskolan oinarrizko prestakuntza ematen dute

18 urtetik gorakoei zuzenduriko Agerialden kokaturiko eskolan izena emateko aukera duzue. Oinarrizko prestakuntza ematen dute; hizkuntzak, oinarrizko informatika, idazmena eta irakurmena, joko matematikoak, natur zientziak, geografia, historia edota historiari lotutako artea... Horrekin batera, DBH titulua eskuratzeko moduluak, gaztelania atzeritarrentzat. Baita kultur ekintzak ere, bidaia eta kultur irteerak. Edota etorkinentzako

programa ere badute: euskara eta gaztelania irakasteko edota baita oinarrizko prestakuntza eskaintzeko ere. “Denok gaude ikasteko sasoian!”, gogorarazten dute.

Matrikulazio epea zabalik dute, astelehenetik ostirale-ra ordutegi honetan: 10:00-13:00/17:00-19:00. Aurrez hitzordua eskatu. Irailaren 15ean ekingo diote 2022-23 ikasturteari. Informazio gehiagorako: 943 376 443/012734aa@hezkuntza.net.

Santuenea Elkartearen ikastaro eskaintza

Ikastaro eskaintza zabala iragarri du Santuenea Kultur Elkar-teak ikasturte berrirako.

■ Aeroyoga eta aerofitness ikastaroak astearte eta asteazken arratsaldeetan, irailaren 20tik aurrera.

■ “Aero-restauratiboa” asteazken goizetan.

■ “Joskintza ikastaroa ere izango dugu”, gaineratu dute Santuenea K.E.-tik, baina ohartarazi dutenez, eguna zehazteke

dute oraindik.

■ Informazio gehiagorako, deitu hona: 670 027 731.

Muxurbil antzerki taldea

2022-23 ikasturtera begira ikastaroak iragarri ditu antzerki eskolak, 6 urtetik gorako ikasleentzat, gazteentzat nahiz helduentzat. “Astean behin, ordubeteko eskola”.

■ Izena emateko helbideotara idatzi: ixabel.agirresarobe@gmail.com andrea_arruti@hotmail.com

Einean guraso elkartearen eskaintza zabala

Zabalik dute izen ematea Einean guraso elkarteak antolatutako ikastaroetan:

Yoga

- Luzaketak, arnasketak, lasaitzea...
- Irakaslea: Katia (636 71 15 14), Sebas (605 72 28 25).

Pintura

- Oleoa, akuarela, pastela...
- Irakaslea: Susana (609 41 38 83).

Eskulanak

- Teknika ezberdinak ikasi gauza politak sortzeko edo berrikotzeko.
- Irakaslea: Susana (609 41 38 83).

Josteko tailerrak

- Sormena eta joskintza.
- Irakaslea: Ione (637642932).

Orbeldi Dantza Taldea

Orbeldikoek Oiardo Kiroldegian eskainiko dituzten ikas-



Orbeldi Dantza Taldeak Oiardo kiroldegian eskainiko dituen ikastaroetan izena emateko aukera dago.

IKASTARO UGARI

Einean guraso elkarteak, beste behin ere, ikastaro ugari iragarri ditu ikasturte hasiera honetan

taroetan izena emateko aukera duzue. Informazio gehiagorako eta izena emateko orbeldi. udt@gmail.com

Helduak:

- Astelehenetan: Euskal Dan-

tzak, Oinarrizko Taldea.

- Astearteetan: Euskal Dantzak, Talde Aurreratua.
- Asteazkenetan: Plaza Dantza Taldea.

Haurrak (LH-DBH):

- LH 1-2: astelehen edo ostiralean, 16:45-17:45.
- LH 3-4: astelehen edo ostiralean, 17:45-18:45.
- LH 5-6: asteazkenetan 16:45-17:45 edo 17:45-18:45.
- DBH: ordutegia zehazteke.

KzGuneko urriko ikastaroak

Irailaren 30era arte 9:00-13:00 artean zabalduko dute. Urri-rako iragarri dituzte ordea, izena emateko dituzten hurrengo aurrez aurreko ikastaroak:

Urriak 3-11, 16:00-18:00:

"Smartphoneak eta tabletak.

Zure Android gailua erabiltzen ikasi".

Urriak 13-14, 16:00-18:00:

"Whatsapp. Bat-bateko mezularitza zure Smartphonean".

Urriak 27-28, 16:00-18:00:

"Instagram. Partekatu zure argazki eta bideo onenak".

Informazio gehiagorako:

Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Txalaparta Eskola

Iaz abian jarritako Txalaparta Eskola 2022-23 ikasturtera begira da jada. Urriaren 3an hasi asmo dute klaseekin.

Izena emateko aukera

Izen-ematea zabalik dute jada, 695 71 68 78 telefono zenbakian edo txalapartairakasle@gmail.com helbidetan. Bideotatik jaso ahal da informazio gehiago. Txalaparta Eskola Jexux Artze kultur elkarteak sustaturiko eskola da, Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Udalak lagundua.

Garraio zerbitzuak, %50 merkeago

Espainiako Gobernuak onartutako dekretuaren haritik, urtea amaitu arte garraio zerbitzuak %50 merkeago izango dira. Horrela, bada, orain arteko %48, %58 eta %90eko deskontuak handitu egingo dira, eta %74, %79 eta %95 izatera igaroko dira, hurrenez hurren. Deskontu honen %30a Espainiako Gobernuak finantzatzeko du, gainerakoa euskal erakundeek.

Argitu beharreko kontu bat. "Deskontua ez zaie aplikatuko paperean erosten diren joaneko eta joan-etorriko txartelei, eta hobari-tik kanpo geratuko dira, era berean, EAETik kanpoko garraio-erakundeekin hitzartutako abonua ere (Passbask, Euskopass Txik-txak, Transbus, Bortziri...)"

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 19/22

20170
USURBIL

Uraitz, s.l.

Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

Baxurde Krosserako entrenatzen hasteko garaia

Hiru urteko etenaldiaren ostean, herri lasterketa ezagunaren hamahirugarren edizioa ospatuko da, ez garai batean bezala, iraila erdialdean, urriaren 23an baizik. Parte hartu nahi dutenentzako izen-ematea zabaldu du Baxurde Txiki U.T.T.-k. Online bideratu beharko da kronoak.com atarian 12 eurotan.



Parte hartu nahi dutenentzako izen-ematea zabaldu du antolaketa batzordeak. Online bideratu beharko da kronoak.com atarian, 12 eurotan.

Helduen lasterketa abiatuko da lehenbizi 10:30ean Usurbilgo frontoitik. Gune berean amaituko da osatu beharko duten 10,9 kilometroko ibilbidea. Kaxkoa eta inguruko landa-eremua zeharkatuko du Baxurde Krossak. Amaieran, sari bana jasoko dute helmugara iritsitako lehen hiru emakumezko eta gizonezkoek, opari bana

URRIAN JOKATUKO DA
“Irailan beharrean,
urriaren 23an ospatuko
da Baxurde Krossa”

partehartzaile guztiek eta herriko tabernetako hainbat otor-

du, janari lote eta herriko kirolari profesionalen sinaturiko arropa zozketatuko dute.

Txikienak ere korrika

Segidan, eguerdian, 12:00etan hasita umeen krossa ospatuko da. Bi irteera iragarri ditu an-

tolakuntzak; 2013-14 urte artean jaiotako benjaminen eta 2011-12 urte artean jaiotako alebinena; eta 2009-10ean jaiotako infantilen eta 2007-08 urte artean jaiotako kade-teen. Lehenengoa, 600 metrokoa, bigarrenak kilometro bateko luzeera izango du.

Txikien lasterketak ez dira lehiakorrak izango

Lehiakorrak izango ez diren gaztetxoek lasterketatarako doan eman ahalko dute izena, ez soilik herrikoek. Eskualdeko edo aldameneko eskualdeko umeek ere parte hartu ahalko dute. Usurbilgoz gain, Donostialdea, Tolosaldea, Azpeitialdea eta Irunaldekoek. Lasterketak ez dira lehiakorrak izango.

Pedalkadak, salbuespena eteteko

Salbuespen politikarekin amaitzea eskatzeko Sarek Etxarritik Donostiara antolatutako hiru eguneko bizikleta martxak Aginaga eta Usurbil zeharkatu zituen uztailaren 24an. Urriaren 8an emango diote amaiera, azken urte-

tako #IzanBidea dinamikari Gipuzkoako hiriburuan iragarri duten manifestazioarekin, eta mobilizazioaren osteko jaialdiarekin Illunben. Lehenago, azken ostiraletako elkarretartzea Mikel Laboa plazan, irailaren 30ean.



Sarek Etxarritik Donostiara antolatutako hiru eguneko bizikleta martxak Aginaga eta Usurbil zeharkatu zituen uztailaren 24an.

La Vuelta tropelaren bisita

Irunen hasi eta Bilbon amaitu zen Espainiako Itzuliaren 187 kilometroko bosgarren etapak Usurbil eta Aginaga zeharkatu zituen abuztuaren 24an. Ziztu bizian zeharkatu zuten udalerria Donostia aldetik helduko txirrindulariek N-634 errepide-

tik barrena Oriorantz. Usurbilgo Ernaik, Etxealdiako zubitik protesta ekintza burutu zuen. “Usurbilgo gazteok argi erakutsi diegu hau ez dela Espainia, hemen badela herri bat eta independentzia nahi eta behar dugula”.



Usurbilgo Ernaik, Etxealdiako zubitik protesta ekintza burutu zuen. “Usurbilgo gazteok argi erakutsi diegu hau ez dela Espainia”.

ZALDIGAIN
 ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
 Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
 Fax: 943300045

GAR
 GRUPO MONROY
 BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38
 628 45 78 39 628 91 72 15
 reformas@reformasmonroy.com
 KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Usurbil Döner Kebab
 USURBIL

843 675 265
 603 609 183

USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK

www.noaua.eus
 USURBILGO ATARIA

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume baten-tzako. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziakoa da. 649 429 416

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugu bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentzia da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142

943.

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta errolatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari la-

guntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzaria behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jate-txean. 666 671 444

Lan eskaerak

Ostalaritzan edo pintura lanetan zein igeltsertizan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan

zein gauetan. 609 647 728

Umeak zaintzeko eta ingelesa irakasteko prest dagoen neska gaztea. Interesatuak: 644 716 739

Adinekoen eta haurren zaintza lana edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Jada umeekin esperientzia badaukat. Interesatuak: 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharbertitzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Erizain laguntzailea naiz eta pertsona helduak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko lan bila nabil. Orduka, gauak edo astebukaerak interna moduan aritzeko prestasuna daukat. 672 587 671

Umeak zaintzeko prest. Harremanetarako: 695 184179 / aneseoane@gmail.com

Hotel, jate-txe, soziedade edo etxetako garbiketa lanak egiteko prest: 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkat. 688 715 958

BESTELAKOAK

Gutxi erabilitako lau gorpil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

600 litroko altzairu herdoilgai-tzezk (acero inoxidable) kupela daukagu salgai. Sagardoarekin erabilitakoa: 620024663.

San Esteban (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu dituenak Udaltzaintzan dauzka jasotzeko.

Heriotzak**Pili Manterola Aizpurua**

Uztailaren 19an
hil zen
62 urterekin

**Heriotzak****Rosario Trenado Pinto**

Abuztuaren 11n
hil zen
103 urterekin

**Heriotzak****Juliana Atxega Beloki**

Abuztuaren 16an
hil zen
90 urterekin

**Zorionak Maddi eta Manex!!!**

Gure etxeko txikiak abuzturen 25ean 5 urte bete zituen. Ze ondo pasa genuen!! Eta urriaren 2an gure printzesak 8 urte beteko ditu. Muxu haundia familiaren partez!

Heriotzak**Jose Cruz Aizpurua Ayestaran**

Uztailaren 27an
hil zen
79 urterekin

**Heriotzak****Iñaki Urkia Urdanpilleta**

Abuztuaren 12an
hil zen
87 urterekin

**Heriotzak****Jone Arruti Zubiria**

Abuztuaren 16an
hil zen
59 urterekin

**Zorionak Nora!!!**

Gure etxeko printzesak dagoeneko 7 urte handi bete ditu... Muxu handi bat!

Heriotzak**Daniel Elizalde Ilarramendi**

Abuztuaren 7an
hil zen.

**Heriotzak****Romario Rafael Calderón Coronell**

Abuztuaren 14an
hil zen
28 urterekin

**Heriotzak****Isidro Manterola Astaburuaga**

Abuztuaren 17an
hil zen
56 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 08 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 09 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 10 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 11 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astelehena 12 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteartea 13 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 14 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Osteguna 15 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 16 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 17 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 18 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda iraila

16 ostirala

- Santueneko jaiak.
- Sagarrondotik Sagardora: "Sagarraren heldutasun-analisiak", Aitor Etxean-diaren eskutik. 15:30-18:30 Potxoenean. Izen ematea: 10 euro, usurbilkultura.eus edo alkartasuna.eus atarietan.

17 larunbata

- Santueneko jaiak.

18 igandea

- Santueneko jaiak.
- Usurbil 1936 elkarteak antolatutako ekitaldia. 12:00etan Irubiden. Ikus 9. or.

Santueneko jaiak, begi-bistan

Astebete falta da oraindik. Dena den, jai egitaraua dagoeneko lotuta dago. Igande honetan pala txapelketako kanporaketak jokatuko dira eta finala datorren ostegunean, hilaren 15ean, txupinazoa bota bezperan.

Irailak 11, igandea

Pala txapelketa mistoa (kanporaketak). Balkoi apaintze lehiaketaren hasiera (zenbakiak banatuko dira).

Irailak 15, osteguna

Pala txapelketaren finala.

Irailak 16, ostirala, Mozorro eguna

- 17:00 Txupinazoa. Ondoren, ur jolasak eta globo-gerra.
- 18:00 Txokolatada Tragoxkan.
- 18:30 Buruhandiak.
- 18:30 Karro-kalejira eta poteo mozorro-tua.
- 21:00 Patata tortilla lehiaketa (norberak ekarria). Ondoren, tortillekin auzo-afaria.
- 23:30 Dj GorkaMendi.

Irailak 17, larunbata

- 11:00 Familia jolasak.
- 12:00 Kilkerband txaranga.
- 13:00 Buruhandiak.
- 13:30 Haur bazkaria (norberak ekarria, bertan edaria eta postrea banatuko dira).
- 15:30-16:00 Muserako izen-ematea.



Dj GorkaMendik girotuko du irailaren 16ko gaua.

- 16:00 Mus txapelketa.
- 16:00 Haurrentzako tailerrak.
- 17:30 Kuadrilen arteko jolasak.
- 17:30 Txokolatada Zaharren Egoitzan.
- 19:00 Sardina-jana.
- 19:00 Buruhandiak eta Kilkerband.
- 21:30 Pottotte elektrotxaranga.
- 00:00 Dj Dusaint eta Inkilt, Dj Hainar.

Irailak 18, igandea, Jubilatuen eguna

- 09:00 Esnadeia.
- 11:00 Zirku tailerra.
- 11:00 Toka eta igel txapelketak.
- 12:00 Hamaiketako Tragoxkan eta Zaharren Egoitzan.
- 12:00 Zantantzarrak.
- 14:00 Auzo-bazkaria. Tikitak Zaharren egoitzan, Tragoxkan, Aitzagan, Artzabalen.
- 18:30 Magia poteoa Asier Kidamekin.
- 18:30 Buruhandiak.
- 19:00 Piper dastaketa.
- 19:30 'Balkoi premiyua'.
- 21:00 Festen amaierako traka.

Datozenak

Irailaren 24an, kantu-jira

Herriko euskal kantu taldeko kideak jiran ibiliko dira irailaren 24an. Kantu-liburuxkaz ez ahaztea eskatu dute. Asteleheneroko entseguei ere ekingo diete berriro ere. 18:00etan bilduko dira Agerialdeko musika gelan.

Kantu-jira

- Eguna: Irailak 24 larunbata.
- Ordua: 12:30-14:00.
- Tokia: Mikel Laboa plaza.
- Deitzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.

Irailaren 30ean elkarretaratzea, Sarek deituta

Ohiturari jarraituz, hilabeteko azken ostiralean elkarretaratzea egingo da Mikel Laboa plazan. Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko mobilizazioa Sarek antolatu ohi du.

Elkarretaratzea

- Eguna: Irailak 30 ostirala.
- Ordua: 20:00.
- Tokia: Mikel Laboa plaza.
- Deitzailea: Sare.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ARRANDEGIA PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERA WhatsApp-ETIK!
650 31 31 91 USURBIL

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea zabalik

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

•HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.

Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
- **EUSKARA TAILERRA (MAILA 0, 1 ETA 2)**
- **GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT**
- **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

noqua



Askorako eman dute 25 urtek, 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarrizko bultzada izan zuen Noqua Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada jaio zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzea animatu nahi zaitugu.

**40€
URTEAN**

30 urte baino gutxiago dituzu?
Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!

25 € / URTEAN*

* 30 urte betetzearen automatikoki bazkidegiz arnuta izatera pasako da.



ESKANEATU

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noqua Kultur Elkartea eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdikoa, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreketan.
- Datorren urteko errenta aitorpenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkaria astero posta arruntez jaso aukera.

ZOZKETA

Abendura bitarte bazkide egiten bazara, Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150 €-ko erosketa bonoaren zozketan parte hartuko duzu.

GOLDWELL
ELUMEN

*i
l
e
a
p
a
i
n
d
e
g
i*



**Kolorazioetan teknika
berriak eta iraunkorrrak**

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2022

Kimaketa
praktikak
bertako
sagastietan
egingo dira!

Irailak 16, OSTIRALA
SAGARRAREN HELDUTASUN
ANALISIAK.
Aitor Etxeandia

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenean



SARRERAK: aldez aurretik
usurbilkultura.eus plataforman eta
alkartasuna.eus web orrian.

